

PRENTSA OHARRA

NOTA DE PRENSA

Lan Eskaintza Publikoaren bitartez beteko diren administrari plazak 8rekin handituko dira

8 plaza horiek behin behineko emaitzen aurkako erreklamazio fasean dauden 2021ean onartutako 97 plazetara gehituko dira

Tokiko Gobernu Batzarrak adostu du 2021eko urtarrilaren 26an onartutako administrari plazen deialdia handitzea, 2023ko Lan Eskaintza Publikoan sartutako 8 administrari plazekin. Beraz, 105 plaza – 97 modalitate orokorrean eta 8 desgaitasun bat dutenentzat gordetako kupoan – izango dira txanda librean beteko direnak.

2023ko Lan Eskaintza Publikoaren 8 plazak 2017, 2018, 2020 eta 2021eko Lan Eskaintza Publikoetan sartutako 97 plazetara gehitu dira. Prozesua lehiaketa fasean dago, behin behineko emaitzen aurkako erreklamazioen erantzunen zain.

Lehiaketa horren oinarriek ezartzen dute plaza kopurua handitu daitekeela, baldin eta behin betiko kalifikazioak argitaratu ez badira. Hori dela-eta, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du 2023ko Lan Eskaintza Publikoaren bitartez eskaintzen diren administrari 8 plaza horiek hasitako prozesuari gehitzea, eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituta, eta onartutako administrari plaza huts guztiak betetzeko.

Deialdian 5.000 hautagai baino gehiago inskribatu ziren; horietatik 2.568k lehenengo ariketa egin zuten eta 959k oposizio-faseko kanporatze-ariketa guztiak gainditu dituzte.

HAPO

Tokiko Gobernu Batzarrak onartu du, Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Informazio eta Diagnostiko dokumentuak, Berrikuspenaren Aurrerapena eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa egiteko zerbitzu kontratuaren exekuzio epea luzatzea. Hortaz, kontratua 2023ko urriaren 31 arte luzatuko da.

Turismoa

Tokiko Gobernu Batzarrak Competitividad, Desarrollo e Innovación SL enpresari esleitu dio Donostiako helmuga turistikoaren jasangarritasun planaren exekuzio kontrola, jarraipena eta ebaluazioa egiteko zerbitzuaren kontratua.

Kontratu hau Next Generation EU Europako Funtsekin finantziatuta dago, eta helburua da, ebaluazio-plana eta -programa etengabe monitorizatzeko sistema bat diseinatzea eta ezartzea. Eta horretarako, enpresa esleipendunak Donostiako Turismo Jasangarriaren Plan Estrategikoaren garapenaren egungo egoera ebaluatuko du, eta



PRENTSA OHARRA

NOTA DE PRENSA

era berean, behin plan horretan aurreikusitako jarduerak amaituta, beste ebaluaketa bat egin beharko du.

Egungo egoeraren ebaluazioa egiteko epea 2023ko abenduaren 31n amaituko da eta ezingo da epea luzatu; eta aldiz, planean aurreikusitako jarduerak amaituta egin beharreko ebaluazioa egiteko epea 2024 abenduaren 31n amaituko da.

Osasun publikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak onartu du, Substantzia mendekotasun-sortzaileak kontsumitzea edo edukitzea prebenitzeko programaren zerbitzua kontratatzeke espedienteari hasiera ematea. Kontratuak urtebeteko epea du, beste urtebetez luzatu daiteke, eta urtero gehienez 29.700 euroko aurrekontua izango du.

Otorduak programa

Tokiko Gobernu Batzarrak onartu du Intxaurrendoko gizarte zerbitzuen zentroan gizarte-bazterketa egoera larrian dauden pertsonen eta familien zuzendutako OTORDUAK programarako janaria prestatzeko eta entregatzeko zerbitzua kontratatzeke espedienteari hasiera ematea.

Kontratuak bi urteko iraupena du, beste urtebetez luzatu daiteke, eta urtero gehienez 77.589 euroko aurrekontua izango du.

Kontxako kabina kolektiboak

Tokiko Gobernu Batzarrak onartu du, Kontxako hondartzako kabina kolektiboetan sarbideak kontrolatzeko sistema bat hornitzea eta instalatzea kontratatzeke espedienteari hasiera ematea. Kontratuaren aurrekontua 44.528 eurokoa da eta enpresa esleipendunak 8 asteko epea izango du sarbide-kontrola instalatzeko.

Garabia

Tokiko Gobernu Batzarrak Bilbotruck Sociedad Limitada eta Foima S.A. enpresei esleitu die, ibilgailuak bide publikotik kendu, ibilgetu, ibilgetzea kendu eta gordetegian uzteko zerbitzua emateko bost garabi ibilgailurekin hornitzeko kontratua.

Zehatzago, Bilbotruck Sociedad Limitadak hornituko ditu kontratuaren 1.go SORTAko autoak eramateko lau ibilgailuak, eta aldiz, Foima S.A 2.SORTAko autoak eta motorrak eramateko garabia hornitzeaz arduratuko da.



PRENTSA OHARRA

NOTA DE PRENSA

1.go SORTAren enpresa esleipendunak 32 asteko epea izango du ibilgailuak entregatzeko, eta esleipen prezioa 384.489 eurokoa da; eta berriz, 2.SORTAko enpresa esleipendunak 50 asteko epea izango du ibilgailua entregatzeko, eta esleipen prezioa 106.661 eurokoa da.

